

# ZULOAGA TA EIBAR

Inazio Zuloaga pintore entzutetsuaren ehungarren urteburuan, ongi iduritu zaigu berak Eibarren pintatu zituen lanen berri ematea. Eta, era berean, baita Arrateko elizarako egin zituenena ere.

Hemendik aparte, denok dakigu, gogoangarriak ditugula Euskal Herriko beste zenbait lekutan egin zituenak ere, Zumaian batez ere, eta bereziki Bilbaoko Arte Berriaren museoan, Donostiako San Telmo museoan, Bermeoko kasinoan, Zumaiako Santiago etxean, eta abar.

Ba dakigu anitzek esango dutela, Zuloagak, bere gaiengatik, pintore erdalduna dirudiela; baina, gure iduriz, euskaldun baten Espainia ikusteko era zela esango genuke. Aparte utzirik, Flores Kaperotxipik zioen bezala, pintore bat ez dela euskaldunagoa, euskaldungoaren barnean soilki aritu arren.

Artistak, artista den aldetik, libre du bere bidea hautatzea. Hala ere, aitortzen dugu, Zuloagak euskaldungoaren barnean bakarrik egin bazuen nahiago genuela. Baina bere tenperamenduak, beharbada, gai gogorragoak behar zituen hemen aurki itzakeenak baino; eta artistak barne deiari erantzun zion.

Eibarren bere lehen denboretan egin zituen lanak hauek dira:

1. Arrateko itsua, 1887.
2. Zaharraren burua, 1887.
3. Apaiz bat otoitzean, 1886-1887.
4. Azken hagina, 1888.
5. Eibarko iturria, 1888. (Bere familiakoek gordetzen dute Zumaian).
6. Ukulu bat, 1889 inguruan.
7. Forjari zauritua edo Sutegian lanean zauritua, 1890.
8. Don Pedro ipotxaren erretratoa, 1890. (Bruselasen, Van Custens-en kolezioan).
9. Don Plazido Zuloagarren erretratoa, 1892-1893.
10. Pintorearen amonaren erretratoa, 1890-1893.
11. Eibarko korridaren estudioa, 1899. (Etxebarrietaren kolezioan, Bilbaon).
12. Eibarko korrida, (Eibar-Segovia), 1899. (Lanckronsky Kondearen kolezioan, Vienan).
13. Naturaleza hila plater urdinean, 1907. (New Yorken, partikular baten kolezioan).

Hoietariko gehienak, gaur, ez dakigu non direnik ere. Eta hoietatik aparte, Arrateko elizarako egin zituen lau kuadroak, bere aldekoak modelo harturik eginak, Sevillan eginak dira, 1904-ean.

Eibarren, bere aldekoen artean eta Arraguetako etxe batean, dakigunez, guttienez bi kuadro gordetzen dira. Hau da pintorearen jaiotzako ehungarren urtea betetzean, bere herrian daudenen berria.

EGURENTARRA, "ANAITASUNAN"

# DESDE MI VENTANA

POR J. M. SERNA

## *Un faro entre montañas*

•

Las 21 horas para los ferroviarios (los fieles servidores de los pasos a nivel de Ardantza y Legarre así miran el reloj; las nueve de la noche para todos los demás, que somos mayoría aplastante.

Por Unzaga, apenas nadie; tal vez, alguno cuya pasión por el chiquito sea superior al deporte del "gol".

El aire respira acontecimiento. Las amas de casa miran por sus ventanas en una dirección, hacia Ipurúa. Los niños miran también, pero con ojos más asombrados. Si me apuran, también se ve a los pinos de Elgueta mirar desde lo alto, tapándose un poco sus ojos de pino con las ramas porque hay demasiada luz en Ipurúa, y también se asombran de que se pueda competir con el sol en claridad.

En el campo, los hombres miran al terreno de juego porque hacia arriba las luces hacen daño, pero mantienen durante todo el tiempo la boca abierta por la admiración. Ipurúa tiene luz propia. ¡Ahí es nada! La verdad, que esto no es nuevo, pero hasta ahora sólo era patrimonio de Madrid, Barcelona, Bilbao, San Sebastián, capitales de primer orden, y, tal vez, alguna población más pequeña, como la Línea (aunque con "ayuda" también se puede), pero Eibar no es diferente. ¡Es única!

El campo tiene su luz. Pensemos en los desvelos de su Directiva hasta conseguirlo. Sigamos pensando en los desvelos de ésta cuando Iberduero pase sus recibos. Competir con el sol cuesta caro, pero se puede competir. De todas maneras, la Sociedad Deportiva Eibar ha lanzado al cielo su plegaria radiante, el "chorro de luz", para que Dios mueva al corazón del aficionado, para que se dé cuenta del sacrificio de su club y acuda en masa, no una sola vez o dos por novedad, sino siempre, por sentimiento, en apoyo de unos pocos eibarreses de corazón que quieren hacer ¡única! a Eibar.